

LASZLO TÖKES

Europa maitea! Zelan doan zure aurpegia barriro be dotoretuten. Bagenkian zure ekialdetik datortzun aize barriak sendo diarduala, baina ez genduan uste ain bizkor zure tximurrak desagertzzen asiko ziranik. Zure historia ez da izan beti larrosen usainaz lurrindua. Zure altzoan, Stalin, Hitler, Gomulka, Breznev, Honecker, Ceaucescu ta antzeko tokor bildurgarriak sartitan koskortu izan dira. Zure begietatik zenbat negar-malko mingarri, Gulag, Auschwitz, Dachau, Timisoara ta beste ainbat sarraski eta masakre ikusita.

Baita, zorionez, zure altzoan azi dira askatasunaren eta giza-eskubideen defendatzailerik sutsuneak be. Zeu zara demokraziazaren sortzaile! Zeure semerik kutunenak dituzu Wyszynski Polonian, Mindzenty Hungarian, Stepinac Yugoslabian, Beran Txekoslovakian, Slipyz Russian, Laszlo Tokes Rumanian. Auxe dozu, Ceaucescu eta here «sekuritateko» mutil zitelen erpeetatik Timisoara erria jaso eta zutik jarri izan dauan eleiz-gizon ausarta.

Zure sabela gizon kementsuak sortzen ez da izan makala! Aurrerantzean be, zure sabela emankorra izango da zure zanetan kristau fedearen amasa tinko irauten badau. Orra or zure identitatearen ezaugarririk nabariena. Ortik datortzu fruturik ederrenak eta goxoenak be. Ez ukatu zure nortasunaren seinalerik sakonena eta frutukorrena.

Komunismoaren porrota

Komunikabide askoren esanetara, guzurraren guzurrez, sarritan bizi garenez, munduko zerua eta paradisia komunisten errietan aurkitzen ei dira. Gure Euskalerra maitean be, aspaldion satorkeri lana nagusi izan danez eta danez, 50 urtetik beerako jendeari ez jako ain erraz izango ulertzea ta gitxiago oraindino komunisten errietan gertatzen asi dana iruntsitea. Ain polito ipini izan dauskuez erri orretako lorpenak eta exitoak...

Gure komunikabideetan marxismoaren eragina izugarria izan da. Nok ukatu gure artean ezagutu eta ezagutzen dan «terrorismo intelektuala»? Gure arteko marxisten inteligentziak pozoindu eta usteldu izan ditu euskalerriko ainbat unibertsitario eta seminarista. Zelan ixildu izan dauskuezan ekialdeko totalitarismoak... Komunisten gobernariak bildurgarritzko diktadurak diranik, ez dogu entzun be egin oraintxe arte. Rusiako «kontzentrazio-kanpoak», 1923. urtean asi ziranik bere ez. Zelan estali izan dabez mendebaldeko komunikabideak orrenbesteko guzur itzelak? Ekialdeko zoritxarrez zerikusi aundia dauken makina bat errudun arroputz eta maltzur izan dira eta badira mendebaleko demokrazietan... Azken urteotan ikusten diran gauzak ikusita, baten batzuk asiko dira begiak zabaltzen.

Sarritan entzun izan dot esaera au: «kapitalisten errietan askatasuna nagusi, komunisten errietan, ostera, justizia» Ta au ez da egia. Erri orreetan, Estatua bera biurtzen da kapitalistarik lotsagarriena. Au ta bestea barik, Estatua bera izaten da kapitalistarik gogorrena. Gobernuko jendea ta euren alderdikoien sakelak beteta. Erritarrak, ostera, gosez eta bildurrez tragauta. Orixe da egi santua. Demokrazi errietatik ez doa inortxo ieska komunisten errietara, naizta erri orreen izenetan, demokrazi izan santua agertu. Bai, ostera, komunisten errietatik makina batek ies egin dau mendebalera. Brandenburgoko ateak inoiz itxi ez balitz edo Berlingo arresiak inoiz ezagutu ez balitzaz, ekialdeko alemaniarak bakarrik itziko eben Honecker diktadore petrala. Aldrebes, mendebaleko Alemaniatik ekialdera, amesetan bere ez.

Benetako komunismoa ezagutu izan daben erriak ez dabe nai barriro olako ondamenik leporatu. Esate baterako, Rumaniaiko gaitzak eta penak ez ziran asi Ceacescurekin, komunismoa Rumanian sartu zanetik baino. Orixe da argi eta garbi erriak oiukatzen dauan egia, batez be gaztediak. Ez dau inondik inora komunistarik begi aurrean, gobernu barrian, ikusterik be nai.

Stalin, Ceaucescu, Honecker eta abar, marxismo-leninismoaren semetxoak baino ez dira. Sistema bildurgarri au onartu ezkerro, derrigorrez sortzen dira olako diktadore piztiak. Zelako aita, alako semea. F. Nietzsche doktrinea jarraituz, Hitler bezelako gizonen nazismoa sortzen da. Ta Marx eta Leninen doktrina jarraituz, Stalin eta Ceaucescuren totalitarismoak.

Ez jutziziarik, ez askatasunik, ez aberri sentimendurik. Komunismoa izan da aberrien areriorik aundiena. Rusiara begiratzea baino ez daukagu. Hitlerrek eta Stalinek (naziztak eta komunisten arteko konponketa) alkarrekin egindako paktoa lekuko. Zenbat aberri ondatu ziran pakto maltzur orren ondoren. Naikoa izan da, Gorbachoven perestroikaren argi izpitxo, ekialdeko Europa sutan jarteko. Tanketen arrazoen indarrez izan ezik, ezin dabe abertzaleen egarria eta garra estali. Badoaz komunisten guzurrak, bortxakeriak eta ondamerak eperdiz gora jausten. Azkenean, an eta emen, egia nagusi.

Gizonaren zoria jokuan

Gizon-emakumeok bizi doguzan sentimendu guztietatik, Jaungoikuarenganako sentimenduak dira sustraizkoenak. Jaungoikua dogu gure sorburu, gidari eta elburu. Erri komunistetan egin dabez aleginak gizonen erraietatik Jaungoikua jaurtiten. Fededun izatea naikoa izan da erri orreetan, lan postuak galtzeko edo kasu berean, ez lortzeko. Irugarren mailako gizontzat artu izan dabez fededunak. Ta askotan lelotzat. Zenbat fededun kartzeletan eta masakratuak kristau zintzo izatearren! Ekialdeko lurraldeak, gizaldi onetako martirien odolaz gorrituta dagoz.

Jaungoikua gizon-emakumeen bizitzatik jaurti ondoren, etiko jarrerak berez doaz galtzen. Laszlo Tokesen abotsa izan da erria

zutik jarri dauana. Eliz-gizon onek, argi erakutsi izan dautso erriari Jaungoikuarengan jokatzeko dala gizonen eta erritarren zoria. Jaungoikorik bako erria, sasijainkoen erpeetan, berealaxe, jausten da. Basamortu bildurgarria biurtzen da Jaungoikorik bako erria. Izan be, Laszlo Tökeseu ustetan, errien eta gizonen zaintzailerik onena eta seguruena Jesukristoren Jaungoikua da. Orduan, «konduktor» eta antzeko jauntxoak ezin dabe erriaren arimea usteldu. Orixe izan da Laszlo Tökeseu burruka balentia. Berari esker, demokraziaren zibilizazioa garaile urtengo dau Timisoara erri masakratuen be. Berau dogu Rumanianaren askatasunaren eta esperantzaren arnasa. Bera bezelako kristau jatorrak austu eta birrindu izan dabe Marxen guzurrezko esaera ezagun au: «erlejinoa erriaren opioa da». Historiari begira ez dira gauzak olan. Jesukristoren Jaungoikuaren jarraitzaillé benetakoak beti izan dira ta izango erriaren arimea eta arnasa bizia. Ta ori, Rusiako goimailako agintariak eurak be badakie. Albert Likhanovek lekuko. Fede bako erria, gorputz odol gabea dirudi.

A. Olea